

PRESTAKETARAKO LAGUNGARRIAK

Pobreen Munduko Eguna. Eleizbarrutiko alkartasun zeinua

2021.eko azaroak 13-14

«BAT GARA, CREAMOS COMUNIDAD ACOGEDORA»

«Behartsuak beti dituzue zuen artean» (Mk14, 7)

AURKEZPENA



"A los pobres los tenéis siempre con vosotros"
(Mc 14,7)

Pobreen Aldeko V. Eguna
V Jornada Mundial de los Pobres
Azaroak 13-14 noviembre



«Behartsuak beti dituzue zuen artean» (Mk 14, 7) goiburuaren haritik ospatuko da aurton Pobreen Munduko Eguna. Frantzisko Aita Santuak dei egiten deusku egun horretan: «Pobreak ez dira alkartetik 'kanpoko' pertsonak, anai eta arreba baino eta euren sufrimentua geure egitea dagokigu, euren ondoeza eta bazterketa arintzeko, galdutako duintasuna itzultzeko eta ezinbesteko gizarteratzea ziurtatzeko (...) konpartitzeak senidetasuna sortzen dau». (3)

Eleizbarrutian, dei horri erantzun gura deusagu, "Bat gara. Creamos comunidad **acogedora**" kurtso hasierak proposamenari jarraipena emonez. "Poliedroaren" aniztasunean, pobretasuna eta ahultasuna jasaten dabezan pertsonak be onartu eta txertatu gura doguz.

Hori kontuan hartuta, egun hau alkartze senez ospatzea proposatu gura deutsegu alkarteei; konpartitu eta gure inguruan pobretasunezko egoerak bizi dabezan pertsonengana hurreratu gura dogu. Dei egiten deusuegu ekimen hau martxan jarri daizuen.

Azaroaren 13an –zapataz- alkarteko pertsonak batu parroketan – pastoral barrutietan, pobretasunezko egoerak bizi dabezan inguruko pertsonak kontuan hartuta, euren lekukotasuna eskaini daien. Euren bizitzaren lekukotasunaren bidez bizi eta fedezko lekukotasunaz jabetzeko xedez, banaka eta alkartean esku-hartzera bultzatuko gaituen irakurketak atarateko. Azaroaren 14ko –domekea, pobreen eguna- Eukaristietan, bizi izan dogun esperientzia, ikasitakoak eta alkarteari eskatzen deusazan konpromisoak batera jarri daikeguz. Ekitaldi honetako Eleizbarrutiko Alkartasun Zeinua alkarte guztietan batera jarritako konpromiso eta esperientziez osatuko da.

TOPAKETARAKO GIDA

Ordu erdi inguruko hiru une proposatzen dira:

1. ERREALIDADEARI BEGIRATU

Lehenengo eta behin, gure ingurura begiratuko dogu eta pobretasunezko egoerak ezagutuko ditugu:

- Gure parrokiako edo pastoral barrutiko Caritasen edo Karidade eta Zuzentasunerako beste hainbat eragileren jarduera agertzera emon. Bost-zazpi minutuko aurkezpenaren bidez nabarmendu daikegu errealidade hori. Argazki edo panelez baliatu gaitkez.
- Lekukotasunen mahai-ingurua. Pobretasunezko egoerak bizi dabezan pertsonen lekukotasun bi edo hiru batera jarri. Lanean behin-behinekotasuna jasaten daben, bakarrik dagozan,

behartsu diran, e.a., pertsonak izan daitezke edo egoera horreetan laguntza emoten daben boluntarioak.

Esate baterako: Egoera jasaten dauan pertsonak berak emon leike lekukotasuna; laguntza emoten deutson boluntarioak eta egoera txar hori jasaten dauan pertsonak batera emon leikie lekukotasuna; hainbat errealidadeko esperientziak tartekatu daitezke.

Lekukotasunik emoteko inor ez badago, Eleizbarrutian bideoa prestatuko da eta web orrialdean eskuragarri izango dabe gura daben guztiek.

Lekukotasunen mahaia dala-eta kontuan hartu beharreko hainbat gauza:

Atarikoak:

- Lekukotasunaren abiapuntua, egoera izango da, pertsona bera inoren eraginpean jarri barik.
- Azaltzen dan egoera gizarte arazoa izango da eta ez deutso pertsonari erruduntasunik egotziko. Eskubideen urraketa islatuko dau.

Lekukotasunerako oharrak:

- Aurkezpena: egitasmoarena, pertsonarena.
- Egoera kontatu, deskribatu. Esperientzia.
- Ze eragin dau niregan bizi dodan egoerak.
- Non aurkitzen dot laguntasuna egoerari aurre egiteko.

2. DEI EGITEN ETA ERANTZUNA ESKATZEN DEUSKUN ERREALIDADEA

Aita Santuak pobreen egunerako idatzi dauan mezuaren hainbat zatiz eta Ebanjelioaz baliatuz, entzun dogun errealidadearen deia entzun, entzundako hori "bihotzetik pasatu", eta egoera bidegabe horren aurrean Jainkoak zer eskatzen deuskun ikusi.

Alkarrizketan jardutea eta, gero, batera jarrea, talde handian egin daikegu, aurretik bakarka landuz (edo ez), edo talde txikietan, alkarte bakotxaren egoera eta partaideen kopurua kontuan hartuta.

Ez da nahitaezkoa proposatutako kontu guztien inguruan alkarrizketan jardutea, baina garrantzitsua da banaka eta alkartean ze konpromiso eskatzen deuskuen jasotea.

Aita Santuaren mezuaren txatalak

Frantzisko Aita Santuak egun honetarako kaleratu dauan mezuaren hainbat txatal nabarmenduko dogu. [Esteka](#) honetan eskuratu daiteken idazki osoa irakurtea sustatu.

«Behartsuak besarkatu egin behar doguz, ez zenbatu» (9)

Pobretasunaren ikuspuntu desbardina

«Behartsuek, sarritan, alkartasuna eta erdibanatzea irakasten deuskuez» (6).

«Horregaitik, ezinbestekoa da pobretasunaren ikuspuntu desbardina (...) Behartsuak, euren egoeraren erruduntzat hartuta, baztertu ezker, demokrazia kontzeptua bera be krisian jarten da eta gizarte politika porrot bihurtzen» (7)

«Kontua ez da limosnaren bat edo beste emonda geure kontzientzia arintzea, behartsuakaz dogun axolagabetasun eta bidegabekeriazko hartu-emonaren kultura kontrastatzea baino». (8)

Bizimodu indibidualista

Aita Santuaren esanetan, «bizimodu indibidualistak esku-hartzen dau pobretasunaren sorreran, eta sarritan, pobreei aurpegiatzen deutse euren egoeraren erantzukizun guztia. Halanda be, pobretasuna ez da patuaren emaitza, norberekoikeriaren ondorena baino». (6)

Behartsuek alkartasuna irakasten deuskue

«"Behartsuen" aberastasunek sendatu leikie "aberatsen" hainbat pobretasun eta horretarako nahikoa litzateke batzuk eta besteak batzea eta alkar ezagutzea. Inor ez da alkarrekikotasunean bere buruarengandik zerbait ez emoteko besteko behartsu. Behartsuek ezin dabe bakarrik jasoten dabenak izan; emon ahal izateko baldintzetan jarri behar doguz, ondo dakie-eta zelan erantzun». (6)

Baztertutako emakumeak ebanjelioan

«Emakumeak, hainbestetan baztertuak eta erantzukizunezko postuetatik kanpo itzitakoak, Ebanjelioetan, ostera, protagonista dira errebelazioaren historian» (1)

«Jesusen eta emakumearen arteko "enpatia" sendo honek (...) Jesusen, behartsuen eta Ebanjelioaren iragarpenaren artean dagoan lotura bereizezinaren inguruko hausnarketarako bide emonkorra zabaltzen dau». (2)

Deia katolikoei eta mundu osoari

«Ezin gara etxeko atea noiz joko deuskuen zain geratu, ezinbestekoa da geu joatea etxeetan, ospitaleetan, laguntza-egoitzetan, kaleetan eta batzuetan ezkututzen diran bazter ilunetan, aterpe eta harrera-etxeetan,... eurekin bat egiteko. Garrantzitsua da zelan sentitzen diran, ze antzematen daben eta bihotzean ze gurari daben ulertzea». (9)

« Kontua ez da limosnaren bat edo beste emonda geure kontzientzia arintzea, behartsuakaz dogun axolagabetasun eta bidegabekeriako hartu-emonaren kultura kontrastatzea baino ». (8)

Samariar Onaren parabola. Lk10, 25-37

Lege-maisu batek jagi eta azpikeriaz itaundu eutson Jesusi: «Maisu, zer egin behar dot ondareztat betiko bizitza jasotzeko?». Jesusek esan eutson: «Zer dago idatzita Moisesen legean? Zer irakurtzen dozu?». Harek erantzun: «Maitatu egizu Jauna zeure Jainkoa bihotz-bihotzez, gogo osoz, indar guztiz eta adimen guztiz; eta lagun hurkoa zeure burua lez». Jesusek erantzun eutson: «Ederto erantzun dozu. Bete hori eta bizitza izango dozu». Baina, lege-maisuak, itauna bidezkoa zala adierazo nahirik, esan eutson Jesusi: «Eta nor da nire lagun hurkoa?». Jesusek orduan: «Behin baten, bajoian gizon bat Jerusalemetik behera Jerikorantz, eta lapurren eskuetan jausi zan. Lapurrek, eukazanak kendu eta, egurtu ostean, alde egin eben, erdi hilda itziz. Hatan be, abade bat gertatu zan bide haretan behera eta, gizona ikusi ebanean, bidetik baztertu eta aurrera jo eban. Beste horrenbeste egin eban handik igaro zan tenpluko levitar batek be: ikustean, bidetik baztertu eta aurrera jo eban. Baina bidaian zan samariar bat bertara heldu eta, ha ikustean, errukitu egin jakon. Hurreratu eta zauriak lotu etusozan, olioaz eta ardoaz igurtzi ostean; gero, bere asto gainean jarri, ostatura eroan eta bere ardurapean hartu eban. Biharamonean, zidarrezko txanpon bi atara eta ostalariari emon eutsozan, esanez: "Jagon eizu eta, gehiago gastatzen badozu, hurrengoan natorrenean ordainduko deusut". Zure ustez, hirurotan zeinek jokatu eban lagun hurko lez lapurren eskuetan jausitako gizonarekin?». Lege-maisuak erantzun eutson: «Haretaz errukitu zanak». Jesusek esan eutson orduan: «Zoaz eta egin zeuk be beste horrenbeste».

Hausnarketarako galderak (gidoia):

Astia hartuko dogu errealidadeari begiratzeak eragin deuskuzan zirrara eta sentimentuen inguruan hausnartzeko eta otoitz egiteko; bururatzen jatazan ideian nagusien inguruan; Hitzak zer dinoskun ikusi; Frantzisko Aita Santuaren deiaz ohartu; banaka zein alkarteran, ze konpromiso eskatzen jakun jakin...

- A. Errealidadea bere horretan ikusten saiatu, ez ikusi barik begiratzen daberen pertsonen antzera, telebista ikusten daberen... eta itzulinguruka dabilen ikusle huts lez. Pobretasunezko egoera horreen ARDURA HARTUKO DOT-ARDURA HARTUKO DOGU. Geure buruari galdetuko deusagu: Zelan begiratzen deusat pobretasunezko egoerari? Eta alkarre lez, zelan begiratzen deusagu? Ze sentimentu eragiten deust? Ze sustazen dau nigan?

«Behin baten, bajoian gizon bat Jerusalem dik behera Jerikorantz, eta lapurren eskuetan jausi zan. Lapurrek, eukazanak kendu eta, egurtu ostean, alde egin eben, erdi hilda itziz. Hatan be, abade bat gertatu zan bide haretan behera eta, gizona ikusi ebanean, bidetik baztertu eta aurrera jo eban. Beste horrenbeste egin eban handik igaro zan tenpluko levitar batek be: ikustean, bidetik baztertu eta aurrera jo eban. Baina bidaiari zan samariar bat bertara heldu eta, ha ikustean,...»

- B. Entzun dogun ERREALIDADEAREN ARDURA HARTUKO DOGU; bestearen sufrimentua arindu egiten dauan eta haren patua nork bere egitearen arriskua onartzera bultzatzen gaituan begirada erukitsua izatera deitzen gaitu.

- Hurreratu, esku-hartu, norbaiten alde egin, "neu izan neitekean zauritua edo senideren bat edo auzotarren bat..."
- Behartsuenen esanetara jarri: "zaldi edo astaren gainetik jatsiz" eta bere zoria nork bere eginez.
- Ze eragin dau nigan lekukotasunetan, Ebanjelioan, Frantzisko Aita Santuaren mezuan entzundakoak? Erantzutera bultzatzen nau, zalantzan jarten nau? Zelan?

«... errukitu egin jakon. Hurreratu eta zauriak lotu etusozan, olioaz eta ardoaz igurtzi ostean; gero, bere asto gainean jarri, ...»

- C. DEIAK: Ze eskatzen deusku pobretasunezko, sufrimentuzko errealidadearen ardura hartzeak? Zertara DEITZEN nau? Zertan KONPROMETITZEN naubanaka eta alkarrean?

«...ostatura eroan eta bere ardurapean hartu eban. Biharamonean, zidarrezko txanpon bi atara eta ostalariari emon eutsozan, esanez: "Jagon eizu eta, gehiago gastatzen badozu, hurrengoan natorrenean ordainduko deusut". «... Zoaz eta egin zeuk be beste horrenbeste»

3. KONPROMISOA BANAKA ETA ALKARTEAN

Poliedroaren irudiaz baliatuz (kartelekoa edo kartulina batean marraztu), aurreko puntutik sortzen diran konpromisorako deiak idatzi edo marraztu egingo ditugu edo post-itak erabiliz. "Bat gara. Creamos comunidad" goiburuak dinoan lez, gonbidapen diran deiak.

"Poliedro-murala" amaitu ondoren, argazkia atarako deusagu, topaketan parte hartu dabena kaz batera jarriko dogu sareetan #1gara etiketa erabiliz , gainerako alkarreakaz batera 2021eko Eleizbarrutiko Alkartasun Zeinua osatzeko.

Konpromisoak jasoten dituan poliedroa eta topaketaren esperientzia azaroaren 14ko -domekea, Pobreen Munduko Eguna- Eukaristian aurkeztu eta eskainiko dira.

MATERIAL PREPARACIÓN

Jornada Mundial de los Pobres. Gesto diocesano de solidaridad

13-14 noviembre 2021

«BAT GARA, CREAMOS COMUNIDAD ACOGEDORA»

«*A los pobres los tenéis siempre con vosotros*» (Mc 14,7)

PRESENTACION



"A los pobres los tenéis siempre con vosotros"
(Mc 14,7)

Pobreen Aldelio V. Eguna
V Jornada Mundial de los Pobres
Azaroak 13-14 noviembre



La Jornada Mundial de los Pobres de este año 2021 se presenta con el lema «**A los pobres los tenéis siempre con vosotros**» (Mc 14,7). Con ella, el Papa Francisco nos hace una llamada: «*Los pobres no son personas "externas" a la comunidad, sino hermanos y hermanas con los cuales compartir el sufrimiento para aliviar su malestar y marginación, para devolverles la dignidad perdida y asegurarles la necesaria inclusión social. (...) el compartir genera fraternidad*». (3)

En nuestra diócesis nos hacemos eco de esta llamada dando continuidad a la propuesta de inicio de curso "Creamos comunidad **acogedora**. Bat gara". En la pluralidad del "poliedro" también queremos acoger e integrar a las personas que sufren las situaciones de pobreza y vulnerabilidad.

Con este previo, proponemos a las comunidades cristianas celebrar la jornada en clave de encuentro; queremos compartir y acercarnos a las personas de nuestro entorno que viven situaciones de pobreza. Os animamos a poner en marcha esta iniciativa.

Realizar el sábado 13 de noviembre en las parroquias – unidades pastorales, un encuentro de personas de la comunidad, teniendo en cuenta personas en situación de pobreza, del entorno cercano, que aporten su testimonio. Con el objetivo de hacernos conscientes del testimonio de vida y de fe y a través de su relato de vida, sacar lecturas implicativas en el plano personal y comunitario. En las celebraciones de la Eucaristía del domingo 14, día de la Jornada, proponemos compartir la experiencia vivida, los aprendizajes y las implicaciones para nuestra Comunidad. El Gesto Diocesano de Solidaridad de esta edición se completará con el conjunto de compromisos y experiencias compartidas de todas las comunidades.

GUIA PARA EL ENCUENTRO

Se plantean tres momentos de 30 minutos de duración aproximada para cada uno:

1. MIRADA A LA REALIDAD

En un primer momento se trata de acercarnos a las situaciones de pobreza de nuestro entorno cercano:

- Hacer visible la actividad de Cáritas y otras realidades de Caridad y Justicia de nuestra parroquia o unidad pastoral. A través de una exposición de 5-7 minutos podemos destacar la realidad que estamos observando. Se puede apoyar de fotos o paneles.
- Mesa (redonda) de testimonios. Se trata de poner en común dos o tres testimonios de personas que están viviendo situaciones de pobreza. Pensamos en personas que sufren la precariedad en el trabajo, la soledad, la pobreza, etc. y/o personas voluntarias que acompañan estas situaciones.

A modo de sugerencias: Puede ser un testimonio en primera persona de quien está sufriendo la situación; Puede ser un testimonio compartido entre una persona voluntaria que acompaña y la persona acompañada; Pueden ser realidades combinadas que exponen sus experiencias, etc.

Si no hay posibilidad de testimonios en persona, habrá disponible un video elaborado por la Diócesis y accesible en la web.

Algunos aspectos a tener en cuenta en la mesa de testimonios:

Elementos previos:

- Planteamos el testimonio desde la situación evitando exponer a la persona.
- La situación descrita es una problemática social y no culpabiliza a la persona. Es una realidad de vulneración de derechos.

Posibles cuestiones para el testimonio:

- Presentación: del proyecto/s, de la persona.
- Relato de la realidad, descriptivo. Experiencia.
- Cómo me afecta la situación que estoy viviendo.
- Dónde encuentro el apoyo para afrontar la situación.

2. UNA REALIDAD QUE NOS INTERPELA

Apoyándonos en algunos extractos del mensaje del Papa con motivo de la jornada y en el Evangelio, dejamos que la realidad que hemos escuchado nos interpele, nos “pase por el corazón”, busquemos la llamada de Dios ante esta realidad de injusticia.

La dinámica de diálogo y de puesta en común posterior podemos hacerla en grupo grande, con trabajo previo personal (o no) o en grupos pequeños. Según la realidad de cada comunidad y el número de personas participantes.

No es necesario dialogar sobre todas las cuestiones propuestas, pero sí es importante recoger las que nos llaman al compromiso personal y comunitario.

Extractos del mensaje del Papa.

Se destacan algunos fragmentos del mensaje del Papa Francisco con motivo de esta jornada. Sugerencia de leer el texto completo en este [enlace](#).

«A los pobres se les abraza, no se les cuenta» (9)

Enfoque diferente de la pobreza

«Los pobres nos enseñan a menudo la solidaridad y el compartir» (6).

«Por eso se requiere un enfoque diferente de la pobreza. (...) Si se margina a los pobres, como si fueran los culpables de su condición, entonces el concepto mismo de democracia se pone en crisis y toda política social se vuelve un fracaso» (7)

«No se trata de aliviar nuestra conciencia dando alguna limosna, sino más bien de contrastar la cultura de la indiferencia y la injusticia con la que tratamos a los pobres». (8)

Estilo de vida individualista

El Papa habla de que un «estilo de vida individualista es cómplice en la generación de pobreza, y a menudo descarga sobre los pobres toda la responsabilidad de su condición. Sin embargo, la pobreza no es fruto del destino sino consecuencia del egoísmo». (6)

Los pobres nos enseñan la solidaridad

«Hay muchas pobreza de los “ricos” que podrían ser curadas por la riqueza de los “pobres”, ¡si sólo se encontraran y se conocieran! Ninguno es tan pobre que no pueda dar algo de sí mismo en la reciprocidad. Los pobres no pueden ser sólo los que reciben; hay que ponerlos en condiciones de poder dar, porque saben bien cómo corresponder». (6)

Las mujeres discriminadas en el Evangelio

*«Las mujeres, tan a menudo discriminadas y mantenidas al margen de los puestos de responsabilidad, en las páginas de los Evangelios son, en cambio, protagonistas en la historia de la revelación» (1)
«Esta fuerte “empatía” entre Jesús y la mujer (...) abre un camino fecundo de reflexión sobre el vínculo inseparable que hay entre Jesús, los pobres y el anuncio del Evangelio». (2)*

Llamamiento a los católicos y al mundo entero.

«No podemos esperar a que llamen a nuestra puerta, es urgente que vayamos nosotros a encontrarlos en sus casas, en los hospitales y en las residencias asistenciales, en las calles y en los rincones oscuros donde a veces se esconden, en los centros de refugio y acogida... Es importante entender cómo se sienten, qué perciben y qué deseos tienen en el corazón». (9)

«No se trata de aliviar nuestra conciencia dando alguna limosna, sino más bien de contrastar la cultura de la indiferencia y la injusticia con la que tratamos a los pobres». (8)

Parábola del Buen Samaritano. Lc. 10, 25-37

En esto se levantó un maestro de la ley y le preguntó para ponerlo a prueba: «Maestro, ¿qué tengo que hacer para heredar la vida eterna?». Él le dijo: «¿Qué está escrito en la ley? ¿Qué lees en ella?». Él respondió: «Amarás al Señor, tu Dios, con todo tu corazón y con toda tu alma y con toda tu fuerza y con toda tu mente. Y a tu prójimo como a ti mismo». Él le dijo: «Has respondido correctamente. Haz esto y tendrás la vida». Pero el maestro de la ley, queriendo justificarse, dijo a Jesús: «¿Y quién es mi prójimo?». Respondió Jesús diciendo: «Un hombre bajaba de Jerusalén a Jericó, cayó en manos de unos bandidos, que lo desnudaron, lo molieron a palos y se marcharon, dejándolo medio muerto. Por casualidad, un sacerdote bajaba por aquel camino y, al verlo, dio un rodeo y pasó de largo. Y lo mismo hizo un levita que llegó a aquel sitio: al verlo dio un rodeo y pasó de largo. Pero un samaritano que iba de viaje llegó adonde estaba él y, al verlo, se compadeció, y acercándose, le vendó las heridas, echándole aceite y vino, y, montándolo en su propia cabalgadura, lo llevó a una posada y lo cuidó. Al día siguiente, sacando dos denarios, se los dio al posadero y le dijo: “Cuida de él, y lo que gastes de más yo te lo pagaré cuando vuelva”. ¿Cuál de estos tres te parece que ha sido prójimo del que cayó en manos de los bandidos?». Él dijo: «El que practicó la misericordia con él». Jesús le dijo: «Anda y haz tú lo mismo».

Preguntas para la reflexión (guion):

Dedicamos un tiempo a reflexionar y rezar sobre las emociones y sentimientos que nos ha generado la mirada a la realidad; sobre las ideas principales que me surgen; qué nos dice la Palabra; qué llamada nos hace el Papa Francisco; a qué compromisos nos lleva en el plano personal y comunitario; etc.

A. Tratamos de ver la realidad tal cual es y no como meras personas que miran sin ver, como quien ve la televisión, ... y dan un rodeo. ME HAGO-NOS HACEMOS CARGO de estas situaciones de pobreza.

Nos preguntamos: ¿Cómo es mi mirada ante la realidad de pobreza? Y como comunidad ¿cómo es nuestra mirada? ¿qué sentimientos provoca en mí? ¿qué me suscita?

«Un hombre bajaba de Jerusalén a Jericó y lo asaltaron unos bandidos; lo desnudaron, lo molieron a palos y se marcharon dejándolo medio muerto. Coincidió que bajaba un sacerdote por aquel camino; al verlo, dio un rodeo y pasó de largo. Lo mismo hizo un levita que llegó a aquel sitio; al verlo dio un rodeo y pasó de largo. Pero un Samaritano, que iba de viaje, llegó a donde estaba el hombre y, al verlo,...»

B. CARGAMOS CON LA REALIDAD que hemos escuchado y que nos implica para tener una mirada misericordiosa que alivia el sufrimiento de la otra persona y asume el riesgo de compartir su destino.

- Acercarse, implicarse, tomar partido “podría haberme pasado a mí, en mi familia, a mi vecino”.
- Ponerse al servicio de los más pobres: “bajando de la cabalgadura” y compartiendo su suerte.
- ¿Cómo me afecta lo escuchado en los testimonios, en el Evangelio y en el mensaje del Papa Francisco? ¿Me implica o me cuestiona de alguna manera? ¿cómo?

«... se compadeció; se acercó a él y le vendó las heridas, echándoles aceite y vino; luego lo montó en su propia cabalgadura, ...»

C. LLAMADAS: ¿qué nos supone encargarnos de la realidad de pobreza, de sufrimiento? ¿A qué me siento LLAMADA? y ¿a qué me COMPROMETE personal y comunitariamente?

«...lo llevó a una posada y lo cuidó. Al día siguiente sacó dos denarios y dándoselos al posadero, le dijo: “cuida de él, y lo que gastes de más te lo pagaré a la vuelta». «... Anda y haz tú lo mismo»

3. COMPROMISO PERSONAL Y COMUNITARIO

Utilizando la imagen del poliedro (del cartel o dibujando en una cartulina) escribimos, dibujamos o mediante post-it apuntamos las llamadas al compromiso que surgen del punto anterior. Llamadas que nos invitan, como dice el lema: “Creamos comunidad acogedora. Bat gara”.

Finalizado el “poliedro-mural” sacamos una foto del mismo con las personas participantes del encuentro y la compartimos en redes con la etiqueta #1gara para sumar junto con todas las demás comunidades el Gesto Diocesano de Solidaridad 2021.

El poliedro con los compromisos y la experiencia del encuentro se comparten y ofrecen en la eucaristía del domingo 14 de noviembre, día de la Jornada Mundial de los Pobres.